



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....
Eskualdeko hiri garraioa
kudeatzeko ordenantza
.....

IRUÑERRIAN HIRI GARRAIOAREN ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. TITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua.

Mankomunitateak zeharka emanen du hiri garraio kolektiboko zerbitzu publikoa, eta Iruñerriko Hiri Garraioaren Planean bildutako printzipioekin bat.

2. artikulua.

Ordenantza hau orokorki aplikatuko da Mankomunitateak eskumena duen lurraldean ematen dituen hiri garraio zerbitzuetan.

II. TITULUA

ZERBITZUA ANTOLATZEA

3. artikulua.

Garraio zerbitzuak egokituko ditu bere ibilbide, maiztasun eta geldialdiak, ordaintzeko sistemak eta hornidurak –giza baliabideetan zein materialetan–, teknika, ekonomia edo gizarte irizpideekin bat, zentzu horretan Mankomunitateak hartutako irizpideekin bat.

Mankomunitateak egindako aldaketak, behin-behinekoak izan, eta horregatik, ibilbide alternatibo batekin, edo iraupen mugagabeak izan, aldeztatik eta behar den garaian iragarri beharko dira, bai gizarte komunikabideen bitartez, bai behar diren geralekuetan.

4. artikulua.

Zerbitzua etengabe emanen da; salbuespena izan daitezke ezinbestekak bultzatutako kasu zehatzak, baina halakoetan Mankomunitateak ahalik eta lasterrena iragarri beharko du gertaera hori.

5. artikulua.

Geralekuak terminalak, aukerakoak edo erregulaziokoak izan daitezke.

1.- Lineako terminalak edo zerbitzua hasten den tokikoak deitutakoak beharrezkoak izanen dira eta ordutegiak erregulatzeko balioko dute. Autobusak geldirik egon beharko du geraleku horietan behar den denboran ordutegiak erregulatzeko.

2.- Aukerakoak deitzen direnetan, ibilgailua geralekuan geldituko da soilik pertsonak zain badaude, edo erabiltzaileek ibilgailuaren barnean dagoen txirrina joaz hala eskatzen badute.

3.- Erregulaziokoak aukerako geralekuak dira, igarotze teorikoko ordutegia betetzeko erdiko kontrol gune bat izendatu zaienak. Autobusak abiada egokitu beharko du geraleku hauetatik igarotzeko ordutegia ezarritako balio teorikoa izateko, aintzat hartuta, gainera, zerbitzuaren puntualtasun baldintzetan aurreikusita dauden desbideratze tarteak. Gertatzen bada igarotzeko ordutegia balio hori baino lehenagokoa izatea, ibilgailua gelditu egingo da geraleku hauetan, nahiz eta ez egon inor zain horietan edo erabiltzaileek ez duten eskatu gelditzeko autobusean dagoen txirrinaren bidez, zerbitzua maiztasunaren bidez zehazten den lineen kasuan izan ezik.

4.- Nolanahi ere, gidariak maniobrak egin beharko dituzte geralekuetara gerturatzeko eta, hartara, espaloitik ahalik eta hurbilena kokatzeko.

III. TITULUA.

SARBIDEA

6. artikulua:

1.- Garraioan erabiltzekoak diren ibilgailuetara sartzeara publikoa da eta betebeharrak bakarrik da aurretik tarifa ordaintzea, 9. artikuluan ezartzen denaren arabera. Salbuespena dira 5 urtetik beherako haurrak, behar bezala lagunduta badaude. Ulertzen da behar bezala lagunduta daudela, gutxienez, pertsona heldu bat badago 4 hurreko.

2.- Taldeen kasuan (eskoletakoak, elkarteak...), abisua eman behar du enpresa kontzesiodunari gutxienez 24 ordu lehenago, dagokion linea indartzeko aukera kontuan hartzeko. 16 urtetik beherako pertsonen taldeen kasuan, kopurua ez da inolaz ere ibilgailuaren plaza kopuruaren erdia edo handiagoa izango. 5 urtetik beherako kasuan, gainera, aurreko atalean ezarritakoa aplikatu behar da.

3.- Ezin izanen da ibilgailuan sartu ondoren aipatutakoren bat gertatuz gero:

a) Ibilgailua osorik badago; kasu horretan aurreko atea ez da irekiko.

b) Ibilgailua geralekuan badago erabiltzaileak jasotzen, eta bidaiari gehiago ez bada sartzen. Halakoetan gidariak zehaztuko du zein den ibilgailuan sartzen den azken pertsona.

c) Gidariak sarbideko atea itxi badu eta geralekutik atera eta zirkulazioan sartzeko maniobra hasia badu.

d) Beren tamaina, mota, forma edo beste ezaugarrien batengatik ibilgailua zikindu, bidaiariari traba egin edo lekua kendu gabe ezin eraman daitezkeen fardel edo gauzak eramaten badira. Halakotzat ez dira behin ere joko erabiltzaileek eraman ditzaketan haurren aulkitxoak edo erosketarako orgatxoak.

Fardelen edo beste gauzen gehieneko tamaina ez da izango neurri hauek baino handiagoa: 100 x 60 x 25. Eta muga izango da pertsona bakoitzeko fardel batekoa.

e) Animalia batekin batera joanez gero. Salbuespena da itsuek gidari gisa erabilitako txakurrak eta laguntza txakurrak, egoki identifikatuta daudenak, eta 5. atalean araututa dagoena.

f) Leher daitezkeen edo arriskutsuak diren substantziak eramatea.

4.- Soil-soilik onartuko da bizikletak eramatea, tolestuta badaude eta sendotasun egokiko zorroetan sartuta babestuta badaude, beste bidaiari batzuei kalterik ez egiteko eta ez eragozteko. Hala ere, ez dute lehenetsun izango gurpildun aulkien eta haurren aulkixoen aurrean. Zorroaren barnean dagoen bizikleta tolestuaren tamainak ezin izango ditu gainditu aurreko atalean aipatu diren neurriak.

5.- 3.e atalean ezarri dena alde batera utzirik, etxeko animalia txikiak garraiatu ahal izango dira helburu horretarako egoki prestatutako ontzi edo kutxetan eramaten badira eta, hartara, ez badute zikintzen eta ez badiete eragozten gainerako erabiltzaileei. Garraioa lagungarriko animalia txikiak mugatuko da, hala nola txakur, katu eta antzekoak, baldin eta haien pisua ez bada 8 kilogramotik gorakoa. Bidaiari bakoitzeko animalia bakarrik onartuko da eta beti kaiola batean edo garraiorako elementu edo beste edukiontzian itxi mota batean joan behar du. Garraiorako elementu horren neurriak, gehienez ere, hauek izango dira: 55 x 36 x 35 zentimetro.

7. artikulua:

1.- Ibilgailua dagokion geralekuan gelditzen denean, erabiltzaileak aurreko atetik sartuko dira, 8. artikuluan dauden salbuespenak alde batera utzirik, ahalik eta lasterrera, zerbitzuaren maiztasunari kalte ez egiteko moduan eta geralekura iristearen arabera ezarritako hurrenkeran.

2.- Zenbait lineak komunean dituzten geralekuetan, bi autobus edo gehiago batera elkartzen badira, ulertuko da bigarren autobusa bidaiariari sartzen eta ateratzen uzteko moduko kokalekuan dagoela, arauko kokalekuan. Hirugarren edo laugarren tokian dauden autobusek, ordea, ez dute aterik irekiko lehen kokalekura iritsi arte, geralekuaren seinalea dagoen parera, edo bigarren kokalekura iritsi arte, han badago aurretik zuen autobusetako bat.

8. artikulua:

1.– Gurpildun aulkiak edo mugitzeko beste gailu batzuk eta haurren aulkitxoak haietarako egokitutako tokian jarriko dira eta lotuta eramateko aurreikusita dauden elementuak erabili beharko dituzte, artikulua honetan jarritakoaren arabera.

2.– Gurpil-aulki batean edo mugitzeko beste gailuren batean doazen mugikortasun murriztuko pertsonak bigarren atetik sartuko dira autobusean, eta aurretik abisua eman beharko diote gidariari kanpoan, atearen ondoan, dagoen txirrinaren bidez, ahal den guztietan. Horretarako erabiliko dute autobusetan dagoen arrapala, gidariak aktibatuko duena. Autobusean sartu ahal izango den gurpildun aulkien edo mugitzeko beste gailuen kopurua horretarako egokituta dagoen plaza kopuruaren berdina izango da. Edozein bidaiarik ordaindu ahal izango du bidaia.

3.– Gurpildun aulkietarako eta lekuz aldatzeko beste gailu batzuetarako indarrean dagoen legerian araututako segurtasun sistemak izango dituzte autobusek. Gomendatzen da gurpildun aulkien edo lekuz aldatzeko beste gailu batzuen erabiltzaileek sistema horiek erabiltzea. 1.200 mm x 700 mm x 1.090 mm neurriak gainditzen dituen edo, erabiltzailea barne hartuta, 300 kilogramoko pisua gainditzen duen gurpildun aulkirik edo mugitzeko beste gailurik ezin izango da sartu autobusean edo indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen ezaugarriak gainditzen dituztenak, bereiz daitezkeen moduluak eta erreserbatutako tokietan kokatzeko desmuntatutako daitezkeenak badira izan ezik.

4.– Arrapala ez badabil, taxi bati deituko zaio erabiltzailearen bila joateko, hurrengo autobusak taxiak baino denbora gutxiago behar badu erabiltzailearengana iristeko izan ezik. Erabiltzailea taxiz joaten bada, jaiste aurreikusita zuen geralekua izango da taxiaren helmuga. Dena den, beste helmuga bat adierazten badiu, bi helmugen arteko alde ekonomikoa erabiltzaileak ordaindu beharko du.

5.– Haurren aulkitxoak eta kapazuak, posible den guztietan, aurreko atetik sartuko dira autobusean. Autobusaren egitura dela eta ezin bada horrela egin, bigarren atetik egiten dute, gidariari aurretik jakinarazita.

6.– Autobusean sartu ahal izango den tolestu gabeko haurren aulkitxo eta/edo kapazu kopurua "gurpildun aulkietarako" gordetako tokian sartzen dena izango da.

7.– Aulkitxoan edo kapazuan dagoen haurrarekin doan pertsona heldua da haur horren segurtasun baldintzak betetzeko arduradun bakarra eta haurrak izan ditzakeen kalteen edo aulkitxoak edo kapazuak eragin ditzakeen kalteen arduradun bakarra.

Horretarako, aulkitxoan edo kapazuan doan haurrarekin doan pertsona helduak:

a) Aulkitxoa edo kapazua ibilgailuaren erdiko plataforman jarri beharko du, gurpildun aulkietarako gordetako tokian.

b) Aulkitxoan edo kapazuan behar bezala lotu beharko du adingabea, horietan dauden eusteko sistemen bidez.

c) Aulkitxoaren edo kapazuaren balazta galgatu beharko du.

d) Aulkitxoari edo kapazuari bidaia osoan eutsi beharko dio.

Autobusera igotzean gurpildun aulkietarako eta haurren aulkitxoetarako gordetako gunea beteta badago, aulkitxoan edo kapazuan doan haurrarekin bidaiatzen duen pertsona helduak tolestu ahal izango du, haurra besoetan hartu eta mugikortasun murriztuko pertsonentzat gordetako eserlekuetako batean eseri ahal izango da, edo, eserleku horiek ez badaude libre, beste batean, baina betiere bere ardurapean, edo hurrengo autobusaren zain gelditu ahal izango da. Aulkitxoa edo kapazua tolestean bada, gainerako bidaiarietara igarotzea ez eragozteko moduan utzi beharko da.

8.– Ibilgailu guztiek eraman beharko dute gurpildun aulkietarako gordetako tokietan, ikusteko moduko leku batean, gurpildun aulkiak eta haurren aulkitxoak edo kapazuak autobusetan garraiatzeko araudia.

9.– Eserlekuak eta tokiak gordetzea. Mugikortasun murriztuko pertsonak lehentasunez erabiltzeko, gutxienez, bi toki gordeko dira gurpildun aulkiak edo mugitzeko beste gailu batzuk jartzeko eta lau eserleku autobus guztietan.

Gurpildun aulkian edo mugitzeko beste gailu batean doazen mugikortasun murriztuko pertsonen lehentasuna izango dute helburu horretarako egokituta dauden lekuak hartzeko.

Mugikortasun murriztuko pertsonentzat gordetako eserlekuak autobusean sartzeko ateetatik hurbil egongo dira, seinale egokiak izango dituzte, eta txirrinak, gelditzeko seinaleak eta alarmak izango dituzte eskura. Beste pertsona batzuk eserita badaude gordetako eserleku horietan, gidariak eskatuko die libre uzteko. Hartara, beste bidaiari batzuk bakarrik eseri ahal izango dira eserleku horietan libre badaude.

10.– Autobusean sartzen bada gurpildun aulki bat edo mugitzeko beste gailu bat eta horretarako gordeta dauden tokiak hartuta badaude eta tokietako batean haurren aulkitxo edo kapazu bat badago, haurren aulkitxo edo kapazua daraman pertsona behartuta dago tolestera eta tokia uztera gurpildun aulkian edo mugitzeko beste gailu batean doan pertsona erabiltzaileari. Haurren aulkitxoak eta/edo kapazuak zenbait badira, autobusean azkena sartu den haurren aulkitxoaren edo kapazuaren laguntzailea egongo da behartuta tolestera eta tokia uztera gurpildun aulkian edo mugitzeko beste gailu batean doan pertsona erabiltzaileari.

9. artikulua.

Dagokion tarifa gidariaren aurrean ordainduko da eta honako bide hauek erabiliz:

1. Eskudirutan; kasu horretan ez da onartuko gidariari 20 euro baino gehiago ematea.
2. VIII. tituluaren zehazten den garraio txartela erabiliz, edo, bestela, helburu horrekin egina dagoen beste edozein, ordaintzeko prestatuta dagoen makinaren egindako balidazioaren bitartez.

10. artikulua.

Ibilgailuan onartuta izan ondoren, erabiltzaileak atzeko atearen aldera joan beharko du ahal den tokiraino; modu horretan ahalik eta jende kopuru handiena sartzeari erraztuko da.

IV. TITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua.

Herritar guztiek, eta, halaber, zerbitzuaren erabiltzaileek, eskubidea dute zerbitzua ondoren aipatzen diren ezaugarri guzti-guztiekin eman dadin:

1. Ibilgailuek egoera onean egon beharko dute, bai teknika arloan, bai garbitasun arloan, eta honako betekizun hauek bete beharko dituzte espresuki:
 - a) Kanpoko seinale bat izatea, zer lineatakoa den adierazita.
 - b) Izatea barnean, eta ongi ikusteko moduan, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak. Modu berean, iragarri behar dira erreklamazio orriak badaudela eta Mankomunitateak daukan herritarrari aditzeko zerbitzuaren telefonoa.
 - c) Gutxienez, lau eserleku izatea mugikortasun murriztuko pertsonentzat, komunitateko araudian ezarrita dagoenaren arabera. Eserleku horiek behar bezala seinaleztatuta egon behar dute.
 - d) Edukitzea, ibilgailuaren barnean, zerbitzua behar bezala eskaintzeko Iruñerriko Mankomunitateak beharrezkoa jotzen duen informazio guztia.
2. Geralekuek markesinak garbi eta txukun mantendu behar dira, erabiltzaileak behar bezala erabili ahal izan ditzan.
3. Geralekuek, markesina eduki edo ez, behar bezala seinaleztatuta egon behar dute eta legeak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Modu berean, haietako bakoitzean bere ibilbideari dagokion Linearen informazioaz gain, beharrezkotzat jotzen den informazio orokorra agertuko da, indarrean dagoen araudiarekin bat.

4. Erabiltzaileek eserita bidaiatu ahal izanen dute eserleku librerik dagoen guztietan, baina ezin izanen dute eskubide hori exijitu eserleku guztiak hartuta badaude.

5. Bai zerbitzuaren ikuskariak, bai ibilgailuaren gidariak, erabiltzaileek zerbitzuari buruz eskatutako informazioa eman beharko dute, betiere, erabiltzaileekiko behar den begirunea eta errespetua zainduta. Bai zerbitzuaren ikuskariak, bai gidariak edo herritarrekin lotutako enpresako langileek une oro errespetuz eta erabiltzaileekiko gizalegez, begirunez eta jendetasunez jokatu beharko dute.

6. Aire egokitua ez duten ibilgailuek eta hori piztuta ez daukaten horiek leihoak ireki ahal izanen dituzte erabiltzaileek hala eskatzen badute; nolana ere, gidariari dagokio azken erabakia, erabiltzaileen artean iritzi ezberdinak egonez gero.

7. Barneko megafonia sistema duten ibilgailuek erabiltzaileei oharrak esateko besterik ez dute erabiliko. Gidariak irrati-aparatu bat erabili ahal izanen du, bolumen baxuan eta, betiere, erabiltzaileei eragozpenik eragin gabe.

8. Ezinbestek bultzatutako arrazoiengatik gidariak ibilgailutik jaitsi behar badu barnean bidaiariak egonda, honako hauek egin beharko ditu: motorra itzali, pizteko giltza kendu, bildutako dirua gorde eta, segurtasun neurri bezala, atzeko atea ireki.

12. artikulua.

Mankomunitateak herritarren arretarako bulego bat du, herritarrek, hainbat bidetatik, erreklamazioak, eskaerak eta abisuak aurkeztu ahal izateko.

13. artikulua.

Zerbitzuaren erabiltzaileek zorrotz bete beharko dituzte ondoren garatzen diren betebeharrak:

1. Geralekuan erdiko edo atzeko ateetatik atera beharko da ibilgailutik, eta erabiltzaileak azkar egin beharko du. Salbuespenez, eta ezinbestek bultzatuta, gidariak geralekuetatik kanpo ibilgailutik ateratzeko baimena eman lezake.

2. Erabiltzaileek, ibilgailuaren barnean, gizabidez eta erantzukizunez jokatu behar dute, eta ez diete eragozpenik eragin behar gainerako erabiltzaileei edo gidariari.

3. Erabiltzaileek bete beharko dituzte, kasu guztietan, zerbitzuari buruz eta ordenantza honetan ezarritakoarekin bat gidariak ahoz emandako jarraibideak, eta ez dute horrekin eztabaidarik izan behar, ezta, inolaz ere, gidatzea etenarazi ere.

4. Erabiltzaileak behartuta daude bidaiaren titulu balioduna gordetzera, hondatu gabe eta kontrolatzeko moduko baldintzetan, ibilgailuan dauden bitartean. Erabiltzaileek garraio-ikuskaritzaren eta/edo enpresa kontzesioduneko langileen aurrean ziurtatu beharko dute bidaia ordaindu dutela, bai bidaia-txartelaren bidez eskudirutan ordaindu bada, bai baliozkoa den garraio txartel baten bidez, horren bitartez ordaindu bada.

Pertsona batek baino gehiagok erabiltzen badu garraio txartel bat, autobusetik jaisten den azken pertsonak eduki beharko du bere esku txartel erabilia. Txartel horiek, pertsonalizatuta daudenak izan ezik, daramatzanaren titulua dute, eta, hortaz, era berean erabil ditzake edozein pertsonak.

5. Mugikortasun murriztuko erabiltzaileentzat gordetako eserlekuak hartu dituztenek, orokorrak izan edo ahalmen urrikoentzat gordetakoak izan, ibilgailuan sartzen diren mugikortasun murriztuko pertsonen izuzi beharko dizkiete –11.1.c atalean zehazten dira horiek–.

6. Sarbidea galarazten zaion pertsonak berehalakoan atera beharko du ibilgailutik; autobusa ibiltzen ari bada, hurrengo geralekuan jaitsi beharko du.

7. Ibilgailuan sartzean bizkar-zorroak eramaten dituztenek, bizkarretik kendu eta eskuan eraman beharko dituzte.

8. Erabiltzaileek heldulekuei edo barrei ongi eutsita bidaiatu beharko dute bidaiarien segurtasuna bermatzeko.

14. artikulua.

Gutziz debekatuta egonen da ondorengo hauek egitea:

1. Ibilgailuaren barnean erretzea.
2. Burua edo atalen bat leihotatik ateratzea.
3. Gidariarekin hitz egitea, baldin eta zerbitzuari buruzko informazioa eskatzeko ez bada.
4. Traba egiten duen edo behar ez den zaratarik ateratzea.
5. Eserlekuak gordetzea beste pertsona batzuentzat.
6. Ibilgailuaren barnean jatea edo edatea.
7. Paperak edo beste zerbait botatzea ibilgailuaren barnean.
8. Eskaletasuna egitea ibilgailuen barnean.
9. Ibilgailuen barnean paskinak, eskuorriak edo beste edozein publizitate mota banatzea, helburu sozialei dagozkienak edo garraio zerbitzuarekin lotutakoak izan ezik, aurretik eta espresuki Mankomunitateak baimendu dituenak
10. Arau-haustetzat har daitekeen edozein ekintza edo egin ez, omisio, ordenantza honetan eta aplikagarria den araudian jasota dagoenaren arabera.

V. TITULUA.

ERREKLAMAZIOAK

15. artikulua.

Erabiltzaileek zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko erreklamazioak jarri ahal izanen dituzte Mankomunitatearen egoitzan, dela bulegoetan, dela egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.mcp.es/>) edo ibilgailuetan zuzenean, dagozkien erreklamazio orrien bitartez, eta zerbitzua ematea eten gabe.

Zerbitzuaren ohiko kudeaketari buruzko erreklamazioak, baita ordaintzeko moduari buruzkoak ere, kontzesiodunak eta kargatzeko sarearen titularrak erabakiko dituzte, hurrenez hurren. Mankomunitatearen ardura dira soilik zerbitzuaren titularra izateagatik dituen eskumenei buruzkoak, eta horiek administrazio prozeduraren araudiak ezarritakoarekin bat izapidetu beharko dira.

Enpresak berehalakoan jakinarazi beharko dio Mankomunitateari jarritako edozein erreklamazio, horrek haren aurka balizko zigor prozedura abia dezan araudi honetan ezarritakoa ez betetzeagatik.

16. artikulua.

Enpresa kontzesiodunak edo kargatzeko sarearen titularrak aurkeztutako erreklamazio guztiei erantzun beharko die, modu justifikatuan eta arrazoizkoan, 15 egun balioduneko epearen barnean.

VI. TITULUA

ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUAK ERAGINDAKO KALTEAK

17. artikulua.

Erabiltzaileek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz ondareetan edo eskubideetan jasandako lesio guztiengatik, legean eta hurrengo araudietan zehaztutakoarekin bat.

18. artikulua.

Garraioaren, markesinen eta seinatzeko zutoinen enpresa kontzesiodunari edo kargatzeko sarearen titularrari dagokio zerbitzuaren funtzionamenduak eragindako kalteak erabiltzaileei ordaintzea. Salbuespena da Mankomunitatearen berehalako agindu zuzen baten ondoriozkoak izatea.

19. artikulua.

Erabiltzaileek eramaten dituzten ondareak bidaiariak berak bere zaintzapean eramaten dituela ulertuko da, eta, beraz, enpresaren axolagabekeria edo erruarengatik ez bada, ez da inolako erantzukizunik egonen horiek galdu edo kalte egiteagatik.

VII. TITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

20. artikulua.

1. Arau-haustea da gai honi buruz Ordenantza honetan edo gainerako araudietan ezarritakoa betetzen ez duen edozein egintza.

2. Arau-hauste larritzat honako hauek joko dira:

a) Bere edo gainerako bidaiarien osotasun fisikoarentzat, baita kontzesiodunaren langileentzat edo Mankomunitatearen langileentzat ere, arriskua ekar lezaketen egintzak.

b) Ezarrita dagoenarekin lotuta eta araudian jasota dagoenaren arabera, gidariak, ikuskaritzako langileek edo enpresa kontzesioduneko langileek hitzez ematen dituzten aginduak ez betetzea, zerbitzuari eragiten badio.

c) Mugikortasun murriztuko pertsonentzat diren eserlekuak erabiltzea, zerbitzua ematen duen enpresako langileek eserlekuak libre uzteko agindu arren.

d) Autobusean sartzea, nahiz eta gidariak ohartarazi leku guztiak beteta daudela.

e) Ibilgailuen barnean oihuka aritzea edo zalapartaka, gainerako bidaiariei eragozpenak sortzen, zerbitzuari eragiten badio.

f) Ibilgailuen leihoetatik edo ateetatik paperak edo beste gauza batzuk botatzea.

g) Ibilgailuei, markesinei edo zerbitzua emateari atxikitako edozein elementuri kalteak egitea.

h) Autobusen edo markesinen barnealde edo kanpoaldean idaztea, margotzea, haiek zikintzea edo edozein modutan hondatzea.

i) Ibilgailuetan sartzeko ateak irekitzea edo ixtea eragozteko edo bortxatzea.

j) Ibilgailuan sartzeko ateak irekitzeko edo ixteko gailuak edo konpartimenduetako edozeinetakoak manipulatzeko, enpresa kontzesioduneko langileek beste inork eragitekoak direnak.

k) Ibilgailuan larrialdietarako instalatutako segurtasun edo sorospen gailuetako edozein arrazoi justifikaturik gabe erabiltzea.

l) Ibilgailutik ateratzea edo bertan sartzea, helburu horietarako ezarrita dauden geralekueetatik kanpo, arrazoi justifikaturik ez badago.

m) VIII. tituluaren zehaztutako garraio txartelak iruzur egiteko erabiltzea.

n) Azken bi urteetan arau-hauste arinak berriro egitea.

3. Arau-hauste arintzat honako hauek joko dira:

- a) Ezarrita dagoenarekin lotuta eta araudian jasota dagoenaren arabera, gidariak, ikuskaritzako langileek edo enpresa kontzesioduneko langileek hitzez ematen dituzten aginduak ez betetzea, zerbitzuari ez badio eragiten.
 - b) Ibilgailuen barnean oihuka aritzea edo zalapartaka, gainerako bidaiariei eragozpenak sortzen, zerbitzuari ez badio eragiten.
 - c) Gidariarekin hitz egitea, zerbitzuaren gaineko informazioa eskatzeko ez bada.
 - d) Horretarako ez adierazitako ateetatik sartzea edo ateratzea, gidariaren baimena izan gabe.
 - e) Leihotara ateratzea edo gorputzaren zati bat ateratzea.
 - f) Edozein motatako zarata gogaikarri edo ez-beharrezkoak eragitea.
 - g) Eserlekuak hartu edo gordetzea beste pertsona batzuentzat.
 - h) Ibilgailuaren barnean jan edo edatea.
 - i) Ibilgailuaren barnean paperak edo beste gauza batzuk botatzea.
 - j) Eskaletasuna praktikatzea ibilgailuen barnean.
 - k) Ibilgailuen barnean paskinak, eskuorriak edo beste edozein publizitate mota banatzea, helburu sozialei dagozkienak edo garraio zerbitzuarekin lotutakoak izan ezik, aurretik eta espresuki Mankomunitateak baimendu dituenak.
 - l) Markesinetan edo garraioari atxikitako beste edozein ondasunetan publizitatea kokatzea.
 - m) Garraio txartel balioduna ez edukitzea.
 - n) Oro har, aplikatzekoa den arauditik eratorritik diren eta arau-hauste larria edo oso larria ez diren betebeharrak ez betetzea.
- 4.- Aurreko ataleko k) eta l) puntuetan adierazitako arau-hausteei solidarioki erantzun beharko diote pertsona iragarleak eta deskribatu diren egintzak gauzatzen dituenak.

21. artikulua.

Arau-hauste arinak 750 euro arteko isunarekin zigortuko dira eta larriak 751 euro-tik 1.500 euro-ra joan daitekeen isunarekin. Horretatik aparte doa, bere kasuan, gauzak zeuden bezala uzteko beharra.

21. bis artikulua:

- 1.- Ardura duen pertsonak onartzen badu bere erantzukizuna ebazpena hartu aurretik edozein unetan eta ez badu borondatez ordaintzen zehapena, proposatutako zehapenaren zenbatekoa %25 murriztuko da.
- 2.- Ardura duen pertsonak borondatez ordaintzen badu zehapena ebazpena hartu aurretik edozein unetan eta ez badu onartzen bere erantzukizuna, proposatutako zehapenaren zenbatekoa %25 murriztuko da.
- 3.- Ardura duen pertsonak bere erantzukizuna onartzen badu eta borondatez ordaintzen badu zehapena ebazpena hartu aurretik edozein unetan, proposatutako zehapenaren zenbatekoa %50 murriztuko da.
- 4.- Edonola ere, kasu guztietan, zenbatekoa murriztu ahal izateko, ardura duen pertsonak dokumentu bat aurkeztu beharko du. Dokumentu horretan jasota egongo da administrazio bidean edozein ekintza edo helegite aurkezteari berariaz uko egiten diola.

22. artikulua:

- 1.- Garraio txartel baliodunak ez duten erabiltzaileak, ordenantza honetan adierazita dagoenaren arabera, 60 €-ko isuna jarrita zigortuko dira. Eragin horietarako ez da balioduntzat hartuko profil soziala duen garraio txartel bat erabiltzea haren titularra ez den edozein pertsonak.

2.- Onartuko da zehapena berehala eta borondatez ordaintzea, arau-haustea detektatu den unean, garraio ikuskariari edo enpresa kontzesioduneko langileari emanda, eta kasu horretan 30 €-koa izango da isuna. Ordainketari dagokion egiaztagiria emango zaio pertsona interesdunari. Era berean, 30 €-koa izango da isuna hurrengo zortzi egun baliiodunen barnean ordaintzen bada Mankomunitatearen Herritarren Arretarako Bulegoan.

3.- Ordainketa ez bada berehala gauzatzen, eta aurretiazko ordainketarako epea igarotzen bada, dagokion salaketa bideratuko da dagokion zehapen prozedura abiarazteko. Araua hautsi duenak ez badu datu pertsonalik eman nahi, ez hutsegite honetarako ez eta beste batzuetarako ere, ikuskariak edo enpresa kontzesioduneko langileak laguntza eskatu ahal izango die udaltzainei, foruzainei, segurtasun indar eta gorputzetako beste kide batzuei, eta beste administrazio batzuetako ikuskaritza zerbitzuetako beste kide batzuei, eta horixe jasoko du idatziz salaketan.

4.- Artikulu honek aipatzen duen zehapena gorabehera, araua hautsi duen bidaiariak bidaiatzen jarraitzen badu, dagokion garraio titulua ordaindu edo baliiodundu beharko du ikuskariaren aurrean. Ez badu hala egiten, ondoko geralekuan jaitsi egingo da.

VIII. TITULUA.

GARRAIO TXARTELA

LEHEN ATALA.

Xedapen orokorrak

23. artikulua.

Iruñerriko Mankomunitateak hala eskatzen duten erabiltzaileen esku jarriko du garraio txartel bat indarrean dauden tarifak ordaintzeko.

24. artikulua.

Mankomunitatearen garraio txartela erabiltzaileei ematea horretarako egokitutako kargatzeko sarearen barnean dagoen edozein establezimenduren bidez egin ahal izanen da. Txartela emateko baldintza da lehenbiziko karga bat egin behar izatea eta bai dagokion tasa ordaintzea ere, halakorik badago.

25. artikulua.

Tarifak garraio txartelaren bidez ordaintzeko, aldezturik ordaindu beharko dira. Ordainketa hori txartela eskuratu den gunetan bertan egin beharko da.

26. artikulua.

Garraiorako txartel mota hauek egongo dira:

1.- Garraiorako txartel arrunta edo izengabea: txartelaren titularrik gabea, eta, beraz, hainbat lagunek erabil dezakete txartel bera.

2.- Garraiorako txartel pertsonalizatua, gizarte profilekoa: txartelak titular bat izango du, eta haren datuak eta argazkia txartelean agertuko dira. Titularrak berak eta bakarrik erabili beharrekoa izango da, garraioa gizarte tarifetako baten onuradun den aldetik.

3.- Garraiorako txartel pertsonalizatua, orokorra: txartelak titular bat izango du, eta haren datuak eta argazkia txartelean agertuko dira. Titularrak berak eta bakarrik erabili beharrekoa izango da, garraioa aldi baterako titulu orokorrak ordaintzeko.

27. artikulua.

Mankomunitateak hitzarmenak ezarri ahal izanen ditu beste entitate edo erakunde batzuekin, beste txartel batzuk Mankomunitatearen garraio txartelak dituen helburuetarako ere erabili ahal izan daitezkeen.

28. artikulua.

Ezarrita dauden tarifak garraiorako txartelaren bidez ordaintzeko, autobusetan eta gidariaren ondoan dauden txarteletarako makinak erabiliko dira. Autobus bakoitzean, txarteletarako bi makina daude: aurrekoa edo saltzekoa, eta atzekoa edo baliozkotzekoa. Garraiorako txartel pertsonalizatuak aurreko edo saltzeko makinan bakarrik erabili ahal izango dira, gidariari erakutsita, hark ikus dezan ongi erabiltzen ari direla. Garraiorako txartel izengabeak, berriz, bi makinetan erabili ahal izango dira.

29. artikulua.

Mankomunitateak jaulkitako garraio txartelek, oro har, 5 urteko indarraldia dute iraungi arte. Beste 5 urterako berritzen dira automatikoki, detektatzen bada txartela erabili dela azken urtean, dela kargatzean, dela txartela balioduntzean. Bestela gertatuz gero, iraungi egingo da bai txartela eta bai hari lotutako diru saldoa ere. Gizarte profileko garraiorako txartel pertsonalizatuaren indarraldia, txartel horien onuradun izateko baldintzei lotua, Gizarte tarifak arautzeko ordenantzan ezarri eta zehaztuko da.

30. artikulua.

Mankomunitateak hala eskatzen duten erabiltzaileen esku jarriko ditu bai kargatzeko sarearen barnean dauden establezimenduen kokapena, bai une bakoitzean horren erabilera arautuko duten arauak eta baldintza espezifikoak. Halaber, txartelaren beraren kudeaketari lotutako prozedura eta operazio moldea.

BIGARREN ATALA.

Tarifa motak

31. artikulua.

Garraiorako tarifak bi motatakoak izango dira:

1.- Diru-zorro tituluak: aurretik ordaintzea eskatzen dutenak; hartara, diru saldo bat kargatzen da txartelean eta bidaia bakoitzerako ezarrita dagoen prezioan bidaiak egin daitezke, saldo hori ahitu arte. Tarifa hauek ordaintzeko garraiorako txartelak erabiltzea titulu honetako hirugarren atalean dago araututa. Tarifa hauek, era berean, bi motatakoak izan daitezke:

- a) Tarifa orokorra: prezio orokor batekin, eta horretan ez dago inolako baldintzarik erabiltzeko.
- b) Tarifa soziala: prezio hobaridun batekin, gizarte tarifen onuradunentzat.

2.- Aldi baterako tituluak: ezarrita dagoen prezioan eskuratzeak eskubidea ematen du denbora aldi jakin eta mugatu batean bidaia kopuru mugagabea egiteko zerbitzuan. Titulu hauek garraiorako txartel pertsonalizatuetan baino ezin dira kargatu, eta tarifa hauek ordaintzeko erabiltzea titulu honetako laugarren atalean dago araututa. Tarifa hauek ere bi motatakoak izan daitezke:

- a) Tarifa orokorra: prezio orokor batekin, eta horretan ez dago inolako baldintzarik erosteko.
- b) Tarifa soziala: prezio hobaridun batekin, zenbait gizarte tarifaren onuradunentzat.

32. artikulua.

Tarifa sozial hauen onuradun izateko baldintzak, bai diru-zorro tituluena, bai aldi baterakoenak, Gizarte tarifak arautzeko ordenantzan daude ezarrita. Onuradun horien akreditazioa gizarte profileko garraiorako txartelaren bidez egiten da.

33. artikulua:

1.- Titularra ez den pertsona batek profil sozialeko garraio txartela iruzurrez erabiltzeak berekin ekarriko du ikuskariak edo enpresa kontzesioduneko langileak txartel hori kentzea eta erabiltzaileari kentze horren sinestamendu bat ematea. Sinestamendu horretan, hain zuzen, kentzeko arrazoia adieraziko da.

2.- Tarifa sozialeko txartel horren titularrak Iruñerriko Mankomunitatearen Herritarren Arretarako Bulegora joan beharko du bila. Hori guztia alde batera utzirik titularrak izan dezakeen administrazio erantzukizuna, Iruñerriko hiri garraio publikoaren tarifa sozialak arautzen dituen ordenantzan ezarrita dagoenarekin bat.

HIRUGARREN ATALA.

Garraiorako txartelen baldintzak diru-zorro tituluak ordaintzeko

34. artikulua.

Tarifak garraiorako txartel bidez ordaintzeak eskatuko du aurretik ordaintzea: garraiorako txartelean diru saldo bat kargatuko da –gehienez ere 30 euro izango dira– eta horrek aukera emango du bidaia bakoitzerako ezarrita dagoen prezioan bidaiak egiteko, saldo hori ahitu arte.

35. artikulua.

Garraiorako txartelek aukera emango dute zerbitzuaren tarifak ordaintzeko titularrarekin doazen beste pertsona batzuei diru-zorro tituluaren bidez, multibalidazio bat eginda, lehen aldiz ordaindu denetik aurrera 5 minutuko denbora tartearen barnean. Gizarte profileko garraiorako txartel bat erabiltzen bada, titularrarekin doazen pertsonen aplikatuko zaien prezioa tarifa orokorrarena izango da, E gizarte profileko txartel pertsonalizatuaren kasuan izan ezik. Izan ere, azken horien kasuan titularrarekin batera doanari tarifa hobariduna aplikatuko zaio, E profileko bera.

36. artikulua.

Garraiorako txartela erabiltzen duten erabiltzaileei autobusez aldatzeagatik tarifa aplikatuko zaie, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Lehen aldiz erabili denetik aurrera 45 minutu baino gutxiago igaro badira eta lehen bidaiari erabili den linea ez den beste bat erabili nahi bada. Denbora tarte horretan gehienez ere bi autobus- aldatze egin ahal izango dira aipatu diren baldintzetan.
- b) Multibalidazioa egin bada, titularrarekin doazen pertsonen bidaietako autobus-aldatze baldintzak multibalidazio eragiketa eragin duen lehen ordaintzerako baldintza berberak izango dira.
- c) Autobusez aldatzeagatik tarifak lehen ordaintzean aplikatu den tarifak baino prezio handiagoa badu, prezio baxuago hori aplikatuko da autobusez aldatzean.

37. artikulua.

Garraiorako txartelean dagoen saldoa kontsultatu ahal izango da, edo autobusetan dauden txarteletarako makinetan, edo kargatzeko sareko saltokietan, edo helburu horretarako etorkizunean egokitzen diren beste gailu batzuetan.

38. artikulua.

Tarifak alde aurretik ordaintzeagatik eskuratutako eskubideek automatikoki galduko dute euren balioa ondorengo kasu hauetan:

- 1.- Txartela iraungitzen bada, ordenantza honetako 29. artikuluan araututakoaren arabera.
- 2.- Txartel izengabe bat galtzen bada edo lapurtzen badute.

39. artikulua.

Komenigarri jotzen duenean, baliozko izateari utzi dioten eskubide hauek berreskuratzeko prozedura bat egin ahal izango du Mankomunitateak.

LAUGARREN ATALA.

Garraiorako txartelen baldintzak aldi baterako tituluak ordaintzeko

40. artikulua.

Aldi baterako titulu bat edo abonua bat eskuratzeak eskubidea ematen du 30 egun naturalean (egun jarraiak) zerbitzuan bidaia kopuru mugagabea egiteko. Epe hori zenbatuko da autobusean lehen aldiz ordaintzen denetik, behin erosi denean aldi baterako titulua kargatzeko sarean. Gainera, lehen aldiz ordaintze hori egin behar da, aldi baterako titulua erosi den egunetik aurrera, 7 egun natural igaro baino lehen. Gainerakoan, ordaintzeko epea zenbatuko da erosi zen egunetik 7 egunetara.

41. artikulua.

Aldi baterako titulua duen garraiorako txartel batean (erabiltzen ari den txartela) erresebarako beste bat erosi ahal izango da, baldintza beretan, erabiltzen ari den abonuaren baliozko azken 7 egun naturalen barnean. Erabiltzen ari den abonuaren epea amaitu denean, erresebarako abonuaren baliozkotasun epea zenbatuko da lehen ordaintzea egiten den unetik aurrera, edo, halakorik ez badago, lehenago erabiltzen ari zen abonuaren epea amaitu zenetik 7 egun naturalera.

42. artikulua.

Aldi baterako tituluen baliozkotasun epea kontsultatu ahal izango da, edo autobusetan dauden txarteletarako makinetan, edo kargatzeko sareko saltokietan, edo helburu horretarako etorkizunean egokitzen diren beste gailu batzuetan.

43. artikulua.

Aldi baterako tituluak ordaintzeko garraiorako txartel pertsonalizatuak aukera emango dute diru-zorro tituluak ordaintzeko, eta erabiliko dira aldi baterako titulu baliozkorik ez dutenean.

44. artikulua.

Aldi baterako titulu bat duten garraiorako txartel pertsonalizatuak aukera emango dute zerbitzuaren tarifak ordaintzeko titularrarekin doazen beste pertsona batzuei diru-zorro tituluen bidez, multibalidazio bat eginda, lehen aldiz ordaindu denetik aurrera 5 minutuko denbora tartearen barnean. Kasu horretan, titularrarekin doazen pertsona aplikatuko zaion prezioa diru-zorro tituluen tarifa orokorra izango da, E gizarte profileko txartel pertsonalizatuaren kasuan izan ezik. Izan ere, azken horien kasuan titularrarekin batera doanari tarifa hobariduna aplikatuko zaio, E profileko bera.

45. artikulua.

Aldi baterako titulu baterako prezio berria indarrean sartzen denean, prezio zaharrean eskuratutako abonuek gehienez ere 15 egun natural izango dituzte, indarrean sartze hori egin den egunetik aurrera zenbatuta, aktibatze eta baliozkotasun epea hasteko. Epe hori igaro eta gero, tarifa zaharrak ordainduta eskuratutako eskubideek automatikoki utziko diote baliozko izateari.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENBIZIKOA: Mankomunitateburuak ordenantza hau interpretatzeko edo argitzeko xedapenak agindu ahal izanen ditu, eta horrek dituen publikitate betebeharrak izan behar dituzte horiek.

BIGARRENA: Iruñerriko Mankomunitateak, garraio zerbitzuaren titularraren denaldetik, dagozkion jarduerak guztietan bultzatuko du zerbitzua pixkana-pixkana egokitzea irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren gaian indarrean dagoen legedia aplikatzen dela bermatzeko. Zerbitzu honen barne dauden bitartekoetan egiten diren inbertsioak egiteko orduan, kontuan hartuko dira aipatutako betebeharrak eta ahalmen urritasuna duten pertsona gehienak ordezkatzeko dituen Nafarroako elkartearen txostenak.

HIRUGARRENA: Iruñerriko Mankomunitateak garraio zerbitzuaren titularraren denaldetik dagozkion jarduerak guztietan bultzatuko du zerbitzua egokitzea herritar batek ere bere burua baztertuta sentitu gabe erabil dadin bermatzeko. Inbertsioak edo erabiltzeko araudian aldaketak egiteko orduan kontuan hartuko dira Nafarroako Emakumearen Kontseiluaren txostenak eta ekarpenak.

AZKEN XEDAPENA. INDARTZA HARTZEA

Aldaketa hauek indarra hartuko dute Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, 35. eta 44. artikuluetan xedatutakoek izan ezik, haiek 2018ko urtarrilaren 1ean hartuko baitute indarra.